

Alaves ♦ Baliteke Antonio Karmona kapitaina hasierako hamaikakotik kanpo geratzea

Probak egiaztatzeke unea

Denboraldi-aurreko joko bikainarekin jarraitu nahi du Alavesek Ligan

Ivan Santamaria / Gasteiz

AMAITU DA entseguak egiteko denbora, eta gaurtik aurrera Alavesek zer-nolako maila eman dezakeen agerian uzteko unea iritsi da.

Denboraldi-aurrea ezin hobe izan da Jose Manuel Esnal Mane-k gidatzen duen taldearentzat. Emaitez eta batez ere eginko jokoak zaleen artean piztu duten ilusioa Liga txapelketaren hasieran egiaztatzeke asmoa dute Gasteizkoek.

Horretarako, joan den urteko gurutzeta ahaztu beharko dute: etxetik at izandako emaitza txarrak. Joan den denboraldian sei puntu soilik lortu zituzten arabarrek Gasteiztik landa, eta azken garaipeña lortu zutenetik hamaika hilabete igaro dira. Helburua hau da: iragan urteko zailtasunak ahanzi, eta denboraldiari indarberriturik ekin.

Atzo goizean azken entrenamendu saioa egin zuen Alavesek, Coruñan bertan. Saio horretan Manek jokalaria titular izan daitezkeenekin zenbait jokaldi saiatu zituen. Ikusitakoaren arabera, baliteke zazpi jokalaria berri aritzea Ligako lehenbiziko hamaikakoan.

Hasierako hamaikakoa hau izango da seguruenak: atean, Herrera; atzealdean, Contra eta Ibon Begoña hegalean, eta Tellez eta Berruet erdialdean; zelai-erdian, Pablo eta Desio euskarri lanetan jardungo dira; Martin Astudillo argentinarra eta Morales, berriz, hegalean; aurrealdean, errematatzen iaioak diren bi aurrelari, Meho Kodro eta Javi Moreno.

Karmona aulkian

Hasierako hamaikakoa hori izango balitz, Antonio Karmona bermeotarra aulkian gertatzea izango litzateke ezusteko nagusia; izan ere, Ligako partidurako osorik jokatu zuten 98-99ko denboraldian, eta mailari eusteko funtsezkoa izan zen Alavesentzat. Hala ere, badirudi lehenbiziko partidurako Tellez aritzea hobetsi duela Manek.

Deportivon, Makaay eta Turu Flores ariko dira aurrealdean.

Espainiako Lehen Mailako 1. jardunaldia					
DEPORTIVO			Medina Cantalejo Riazor, 19:00 (PTV)	ALAVES	
					
• Entrenatzailea Javier Iruretagoiena				• Entrenatzailea J. M. Karmona	
• Aulkian				• Aulkian	
13 Kuba 17 Mund 12 Escalante 16 Floren 24 J. Irujo 25 Fernando 9 Puskas				25 Kuba 5 Karmona 20 Asotia 22 J. Irujo 7 X. Begoña 11 M. Morales 9 J. Moreno	
• Etxean				• Kanpoan	
Iniesta Berruete Galdin Galdin Galdin Galdin				Iniesta Berruete Galdin Galdin Galdin Galdin	
• Orokorrean				• Orokorrean	
Puntuak				Puntuak	
93-94				97-98	
94-95				98-99	
				2-2	



JOSEBA OLALDE

Alaveseko jokalaria, aste barruan egindako entrenamendu saio batean.

Garapena arlo guztietan

Ivan Santamaria

Beste denboraldi batez Izarren Ligako kide izatea lortu zuen Alavesek azken jardunaldi ahaztezin batean. Lehenbiziko urtea izateko ez zen lorpen makala izan, baina aurreko denboraldiari beste modu batean ekiteko beharra dela agerikoa da.


Izan ere, helburu berriak planteatzen ez dituen taldeak edo hazteko asmoa ez duenak zeregin eskasa du lehiakortasunaren mundu

horretan. Egia da azken helmuga mailari eustea dela, Alaves talde apala baita oraindik, baina posible da hainbat arlotan taldea garatzea, eta horretaz ohartu da klubeko zuzendaritza.

Oso adierazgarria da azken egunean fitxaketarik egin ez izana. Horrek agerian uzten du lana denborarekin egin dela, eta taldea behar bezala osatu dela. Aurreko denboraldi

lehiakortasunaren erakusle izan daiteke gaur Karmona aulkian ikustea.

Ekonomi eta kudeaketa arloetan aurrerapausoak emanda, jokoan ere izandako akatsak atzean uzteko unea iritsi da. Horretarako, behar-beharrezkoa da joan den urtean etxetik kanpo eginiko lan eskasa ez errepikatzea, eta gaur proiektua erabat berria dela erakusteko lehenbiziko aukera du Alavesek.



EDORTA

Meho Kodro

• ALAVESEKO JOKALARIA •

«Polita litzateke lehenbiziko bi jardunaldietan gol bat sartzea, konfiantza hartzeko»

■ Berezia al da asteburu hau zuretzat?

Bai, joan den urtean banekielako zer gertatuko zen asteburuetan: taldeak kanpo geratuko nintzela. Joan den denboraldiko asteburuak baino usain hobe du honek.

■ Titular postua ere ia segurua duzu.

Bai, ia segurua; baina inork ez du ziurtasun osoa. Gaur arratsaldea arte ez da ezer jakingo, eta entrenatzailearen esku dago.

■ Denboraldi-aurrea ona izan da zuretzat?

Pozik nago, baina oraindik ez nago sasoi onenean. Polita litzateke lehenbiziko bi jardunaldietan gol bat sartzea, horrek konfiantza ematen baitizu. Aspaldi ez dut golik sartu, eta badut bolada txarrari amaiera emateko gogoia. Talde eta jokalaria asko ez daude bete-betean oraindik, eta ni horien artean nago. Hala ere, espero dut lanaren bitartez sasoi onean jartzea berriro.

■ Nola ikusten duzu taldea?

Oso ondo. Guztiok dakigu zer edo zer lortzeko aukera dugula. Ez dugu ezer galtzeko, baina bai asko irabazteko. Deportivo ez dago unerik onenean, eta hori aprobetxatu dezakegu.

■ Berdinketa sinatuko zenuke?

Positibo bat etxetik kanpo beti da ona, eta Deportivoen kontra lasai asko sinatuko nuke. Pozik egongo nintzateke Liga Coruñan berdinketa batekin hasiko bagenu.